



SCALEXTRIC AUTOEN ZALE AMORRATUA

Edorta Jauregi tolosarrak autoen eta zirkuituen bilduma du; guztira, 600 baino gehiago ditu etxean 7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-03-29

VII URTEA 1.666 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Jende ugari hartu zuen parte euskararen aldeko lasterketa erraldoian. Goian leitzarrek eta behean aresoarrak. A. IMAZ

HERRI GUZTIA IRTEN DA KALERA KORRIKAREN LEKUKOA HARTZERA

LEITZA Atzo iritsi zen Leitzara Korrika 16; leitzar eta aresoar ugari hartu zuten parte; apirilaren 2an hartuko du lekukoa Tolosaldeak 5

Udalaren «itxurazko parte-hartzea» salatu dute

TOLOSA Eurei parte hartzea galerazi dietela dio Zahartzaro Duinaren Aldeko Plataformak 4



Iñaki Epelderen eskutik bisita gidatua izan zen atzo, Aranburun. R. CALVO

Jorge Oteizaren lana ikuspegi guztietatik

TOLOSA Aranburun bisita gidatua izan zen, eta Triangulon 'performance'-a egin zuten 4

Aurrera Saiazek
irabazi du
estreinakoz,
VI. Berria Pilota
Txapelketa

PILOTA Irurtzunen aurka jokatu zuten finala, atzo eskualdeko pilotariek 6

Alegia eta Altzo
saikatu dira
BertsolarHITZA
Txapelketaren
finalerako

BERTSOLARITZA Alegia eta Altzo aritu ziren hirugarren saioan; finala apirilaren 4an 6

Euskara askatasunean



» Uzturretik

Andu Martinez de Rituerto

Indarrak batzeko garaia iristear dela entzuten ari garen honetan, Tolosako zenbait gizarte eragilek aurrea hartu dute eta lehenengo, euskararen inguruan bakarka antolatu ohi dituzten jarduerak ezberdinak bazterreratu, elkarlanean jarri dira eta de-

nok Euskarareneara gonbidatu gaituzte. Eskertzekoa eta txalotzekoa da bideratu dutenekimena, ea mezezi duen moduan erantzuten ote dugun tolosaldetarrok.

Euskararen gaiarekin jarraituz, hortxe ari zaizkigu PP eta PSOEko erdalzale amorratuak *euskara askatasunean* leloa hartuta, euskara jada ez dela baztertzailera izango, Euskadiko komunitatean nahi duenak gazteleraz bizi ahal izango duela adarrikatuz (norbaitek gogoratu beharko lieke, hori aspaldi bermaturik dagoela, alderantzizkoa berriz, hau da, Euskadin euskaraz bizi nahi izatea 007 agentearen pelikulan bezala *mision imposible* izaten jarraitzen duela).

Kanpainen zehar, Basagoiti entzuteko parada izan nuen batean, halakoa bota zuen: «Bukatu dira Osakidetzan sartzeko euskara mediku ona izatea baino gehiago baloratu diren garaiak, hemendik aurrera mediku hobereak hartuko ditugu eta ez euskaraz hobetoen moldatzen direnak». Hau dena erdara garbian noski. Zur eta lur gelditu nintzen, larrua behar da gero! Noiztik jarri da euskara ezeren aurretik komunitate honetan? Administrazioaren edozein arloan zenbat aldiz tokatu zaigu euskaraz tutik ere ez zekien profesional kasakarra?

Zaldieroaren tira komiko-satirikoak mundialak iruditzen zaizkit,

lau marrazkiekin eta hiru esaldiekin hainbat idatzi luze eta sakonetan baino zorrozkiago heldu ohi dio edozein gaiari eta igandetako Juan Kruz Lakastarekin elkarlanean *Berria*-n argitaratzen duten *seriodemoniok* ezin hobeki islatzen du asteko kronika politikoa. Aurreko igandean goiko paragrafoan azaldutako ideiarren harira aritu ziren, beti bezala umore eta ironia finez, honela zioten: «arrazoi dute PPkoek eta PSOEkoek, nahikoa da Administrazioan sartzeko diskriminazioekin! ingelesa ere diskriminatzailea da, hiritar gehienok ingelesa ez jakin arren, zenbait lanpostutarako ingelesa exijitzen da, eta ez hori bakarrik, ti-

tuluak ere hor daude. Zergatik behar da Osakidetza sendagile izateko mediku lizentziatura? Hori ere ez al da baztertzailera?». Ona!

Bukatzeko hauteskondeen inguruko hausnarketa txiki bat egin nahi nuke; estatuko komunikabideetan hemen eman den aldaketa sozio politikoaz aritu zaizkigu behin eta berriz, badirudi gauetik goizera denok kontutuzionalistak bihurtu garela, bada hauek dira datuak: EAJ, Aralar, EA eta EB 533.000 bozka, PSOE, PP eta UPD 482.000, Ezker Abertzale ilegalizatuak 100.000 bozka eta botua ematera joan ez zirenak 600.000; ehunekoak ateratzea zuen kontu (Dena den, pista bat: PSOE, PP eta UPD taldeei hamar lagunetik hiruk baino gutxiagok eman diete botua. Segi kontuak ateratzen...).

K Komikia

Gorka Salaberria



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIAVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Korrika = hotzikara

» Iritzia

Lierni Alkorta Zeberio

Tolosaldeko Korrikaren arduraduna

Badator Korrika. Minutuz minutu, urratsez urrats, Tolosaldeko geroz eta hurbilago da Korrika 16aren lekukoa. Honez gero Euskal Herriko herri, auzo eta txoko ugari zeharkatuak ditu, eta beste asko zeharkatuz. Batzuek aurtengo Korrikan parte hartu izanaren poza eta ilusioa oraindik bor-borka izango dute odolean, zerbait handiaren parte izan dire-

naren sentsazioa erraetan. Beste batzuek, aldiz, badatorrenaren grina eta emozioa gorputzean: irrika, ezinegona... Hotzikara bat funtsean.

Hala gaude aurtengo Korrikaren antolakuntzan buru-belarri gabiltzan eskualdeko kideok ere. Korrika besterik ez buruan. Lana, antolakuntza, dena ongi aterako denaren itxaropena eta gogoia. Egindako lana eta emandako (nahiz jasotako) laguntza ezinbestekoa dela sinistuta. Ezinbestekoa, euskarak bere bidea egiten jarrai dezan, eta ezinbestekoa ere, eus-

karaz bizi nahi dugunon herrira datozen guztiei (asko izan bitez datozen urteetan ere) ongi etorri beroak ematen jarraitu ahal izateko. Gure eskualdeko bide eta kale bazter guztiak euskaltalez beteta ikusteko gogoz gaizte gaude.

Eta zu, irakurle, zu ere apirilaren 2a iristeko gogoz al zaude? Zuri ere odola bor-borka hasten al zaizu te-
lebistan, irratian nahiz prentsan Korrika badoala (badatorrela) ikusita, euskararen aldeko lasterketa eskualdetik geroz eta hurbilago dagoela pentsatuta? Hala bada, animo, geroz eta gutxiago gera-

tzen da eta. Hasi prestatzen beraz korrika egiteko oinetakoak, atera armairutik arropa egokia, eta zator Korrika pasatzen den eskualdeko edozein txokotara. Zator eta hartu parte! Euskarak horren guztiaren eta gehiagoren beharra du eta!

Zator eta hartu parte: egin oihu, animatu edo jo txalo, baina batez ere, Korrika pasa ostean ere jarraitu euskaraz mintzatzen, jarraitu unez une euskarari ongi etorria ematen. Jarraitu urratsez urrats, hitzez hitz euskarari bidea errazten. Hori baita Korrikari, AEKri eta batez ere euskarari guztiok egin diezaiogun ekarpenik hobereana. Animo beraz, eta eutsi horri, Korrika badator eta!

Udaberriaren eragina nabaritu da urtaro honetako lehen azoka egunean

PABLO ALBERDI

Atzoko euririk eragin desberdin asko izan zituen asteroko azokan. Jende kopurua Tolosako kaleetan ez zen makala izan, eta euria zela eta, asko Zerkausian edo Berdura plazaren basean sartu ziren giroa alaitzen.

Baratzetan ere euria desiatzen zen zerbait bezela hartzen ari dira. Joan diren egunetako eguzkiak asko lagundu du, baina lurra lehor xamarra geratzen hasia zen. Datoren asteetan nabaritu dugu onura.

Perretxiko zerrenda ere lagundua suertatuko da euri hau dela eta. Mendiak lehor xamarak zirela, euriarekin gora egingo dute, eta ia ziur esan genezake datozen astetan eskaintzak gora egingo duela nabarmen.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak		
Azalea	8,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20
Krisantemoa	12,00	20,00
Klabeledina	2,80	4,00

» BERTAKO PRODUKTUAK

Barazkiak (kiloa)		
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	2,00	4,00
Porrua	1,00	3,00
Kalabaza	1,50	3,00

» Besteak

Ogi biologikoa (900gr)	3,20	-
Arraultzak	1,10	2,40
Irasagarra	3,00	6,00

» Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Behigazta	8,00	9,00

» PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Baratxuria	1,60	6,00
Aza	2,50	3,00
Letxua	1,00	-
Ahuntz gazta (200 gr)	3,00	-

Z Zurea da hitza info

Militarrak Larraitzen izan dira

Atzo (martxoaren 26) goizeko bederatzietan Loiolako militarren Lurreko Ejerzitoko hainbat militar izan ziren Larraitzen. Manio-brak egitera joan ziren eta Alegiatik barrena sartu ziren Amezketa alderuntz...

Herritar bat.

Asuncioneo parkin berria: alde guztietatik begiratuta lotsagarria

Nire semeak esan dit hau idazteko, lotsagarria iruditzen baitzait Asuncion klinikako parkina. Hona hemen beraz nire kritika: lotsagarria bai, lotsagarria. Lehengo egunean Asuncionera joan beharrean izan ginen. Parkinera zuzenean. Beste aukerarik ez baita, nahiz eta behekoan kotxe iladak ikusi mendian gorantz. Parkinean kotxea utzi eta klinikara. 20 minutu ondoren 50 xentimoko txartela ordaindu eta parkinetik biderra. Donostian horrelakorik ez dago. Tolosan bai. Baina nire iritzian larria baldin bada parkinarena, hare eta larriagoa da parkin bera nola egin duten ikustea. Masa pixka bat bota, bi burnizko sare hiltzatu eta listo, parkin bat. Gero protesten berri izan nuen, Asuncioneo langileena. Arrazoi guztia eta elkarta-



sun guztia eurentzat. Dirua diruaren gainean ikusi nuen Tolosako klinikari ere bikain aritu ziren eta ondorioz, gozatu egin genuen desafioarekin. Finalera bi talde hauek pasatu omen dira. Oargin edo Ibarren, berdin dio non, baina ikusteko moduko ikuskizuna, du-darik gabe. Han elkartuko gara guztiak.

Juan Altuna.

Alegin bertso desafio elegantea

Gozatu ederra hartu genuen ostiral gauean Alegiko Gaztetxean. Zaztarre, Iriarte, Felix, eta Beñat oso ongi. Altxotarrak ere bikain. Serio antzera hasi baldin bazen ere

saioa, Zaztarrerren artistakeriek giro bikaina jarri zuten. Beste bertsolariak ere bikain aritu ziren eta ondorioz, gozatu egin genuen desafioarekin. Finalera bi talde hauek pasatu omen dira. Oargin edo Ibarren, berdin dio non, baina ikusteko moduko ikuskizuna, du-darik gabe. Han elkartuko gara guztiak.

Josu.

Araba etorbideko semaforoak

Kaixo! Tolosar bat naiz eta Araba etorbideko semaforoetan dauden

oinezkoen botoiei buruz nire kexa erakusteko idazten dut tarte honetan. Semaforoetan bertan oinokoz dauden botoiak ez dakit noiztik jada ez dute funtzionatzen, bertatik, jende asko eta umeak, nire semea barne egunero ikastolatik etxera datoztela pasatzen dira. Eskertuko nuke dagokionari, ustez udala, konpondu ditzala behingoz. Gauza da denboraldi batean ez ibiltzea bestea ordea honi konponbiderik emateko asmorik ez izatea, ikusi dan bezala, hilabete edo urte hauetan. Eskerrak asko.
Mila.

Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

ANGELES OTAEGI ETXEBERRIA

(Luis Aramendiren alarguna)

Atzo hil zen, Elizako eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Guzureak
Zu Gurea
Betrako
Maitasunez,

Elizkizuna, BIHAR, astelehena, hilak 30, izango da Urretxuko San Martin de Tours parrokian, 19:00etan.



Zure familia

URRETXU
2009ko
martxoaren 29a

Herritarren parte-hartzea eskatu dute Zahartzaro Duinaren aldekoek

Tolosa » Zahartzaro Duinaren Aldeko Plataformak Udalaren «itxura hutsezko parte-hartzea» salatu du.

REBEKA CALVO

Tolosako Zahartzaro Duinaren Aldeko Plataformako kideak Triangulon bildu ziren atzo goizean «Udalak saldu nahi digun itxura hutsezko parte-hartzea» salatzen.

Izan ere, agerrialdian zaharren egoitza berriaren gaia lantzeko herriko Udalak lan talde bat sortu dutenaren berri prentsaren bidez izan dute. «Lan talde hau gaiarekin zerikusia duten hainbat eragileekin osatuta zegoela eman zuten jakitera. Gu, plataformakoak, beste behin ere ez gara gonbidatuak izan», esan zuten.

Zentzu honetan, plataformako kideek gaia lantzen lau urte inguru

eman dituztela gogoratu zuten, «gerontologikoa itxi zutenetik», hain justu. Orduetik «eragile ezberdinekin elkartzeko saioak» egin dituztela ere argitu zuten: «bai Udaleko alkate, zinegotzi eta gizarte ongizateko batzordearen buru den Joxe Agustin Arrietarekin, baita Diputazioko ordezkariekin edota kontzesioa jaso duen enpresarekin ere. Eta, sarritan salatu dugun bezala, sistematikoki zailtasunak jarri ez dizkigutenean, zuzenean eragotzi digute».

World Kafea

Eurei parte-hartzea «galerazten» dieten bitartean, Tolosako Udalak «lotsarik gabe EAEn herritarren parte-hartze prozesutean bere burua erreferente modura aurkezten» duela ere salatu zuten eta horren harira herrian egindako World Kafea eta «berriki sortu duten herritarren parte-hartze batzordea» eratu zuten gogora. «Udal



Tolosako Zahartzaro Duinaren Aldeko Plataformako kideak Triangulon bildu ziren atzo. R. CALVO

honek saldu nahi digun itxura hutsezko parte-hartzearen adibide bat gehiago besterik ez da», gaineratu zuten.

Hala eta guztiz ere, plataformako kideek Udalak Euskal Herri plazako gerontologikoaren beharra salatu eta azkenean beste zahar-etxe berri bat eraiki behar zela onartzeak poztu dituela ere esan zuten. «Oraingo honetan ere, Udalletxeak, lan talde bat osatzea ezinbestekoa dela onartu du, guk aspaldietatik bezala. Era berean, Udala bera, zerikusia duen eragile bat dela barneratu du eta eraikuntza-

ren inguruan eta baita haren gestioan ere, duen erantzukizunaz konturatu da», argitu zuten.

«Guztien baliabideak»

Agerraldian zahar-etxe berriaren gestio enpresa pribatu baten eskuetan geratuko bada ere horretarako «herritarren baliabideak xahutuko dituztela» esan zuten, izan ere «zaharren egoitza berriak eskainiko dituen plaza kopuruen %80 Diputazioak finantzatu du, diru publikoarekin; lur eremua Tolosako Udalak eskainiko du, tolosar guztien ondasuna dena; eta

eraikuntzarako Udalak 540.000 euro inguru eman ditu, guztion dirutik».

Bukatzeko sortutako lan taldearen bizi-iraupena zahar-etxearen eraikuntzarekin amaitzea zentzugabekerizat jo zuten: «Gure ustez ezinbestekoa da bertan biziko diren aiton-amonek jasoko duten zerbitzua duina eta kalitatekoa izan dadin jarraipena egingo duen lan taldea izatea».

Hau guztia dela eta, «herritarren partaidetza» aldarrikatu zuten Zahartzaro Duinaren Aldeko Plataformako kideek.

Jorge Oteizaren lanean sakontzeko eguna

Tolosa » Aranburu artistaren erakusketaren bisita gidatua izan zen, eta Triangulon, berriz, 'performance' egin zuten.

REBEKA CALVO

Jorge Oteiza artista oriotarraren lana hobeto ezagutzeko parada izan zen atzokoan Tolosan. Oteiza Tolosan izenpean antolatutako ekitaldietako bi izan ziren; Aranburu Jauregian ikusgai dagoen Oteiza, bizirako proiektua erakusketaren bisita gidatua eta Triangulon dagoen Atauts obraren inguruko performancea. Aipatu behar da

erakusketa ikusteko azken eguna izango delagaurkoa.

Oteizaren biziaren errepasoa

Oteiza, bizirako proiektua erakusketaren bisita gidatua zuzentzeko ardura Iñaki Epelde artistak izan zuen. Adi adi entzuten zion taldea izan zuen lagun Epeldek goizean zehar eta bere eskulturen bilakera hitz egin zien eta Tolosan dauden Oteizaren bi lanak izan zituen abiapuntu: Atauts eta Pare Mugikorra. Artistak arkitekturara egingiko ekarpenaz ere mintzatu zen eta baita oriotarraren izpiritu iraultzaileaz ere, horretarako bere lan literarioa ere gogoratu zuela, besteren artean.

Bisita gidatuarekin batera herriko hainbat artista gazte ere Oteiza omendu zuten atzokoan Triangulon, nahiz eta goizean eguraldia ez zuten lagun izan. GKO Galeriak antolatutako performancean hartu zuten parte eta guztiek bertako Atauts obra izan zuten hizpide.

Gazteek eskultura mihise moduan hartu eta euren interpretazioa egin zuten eta eguna bukatzerako Oteizaren eskultura lan horiekin estali eta guztiz eraldatu zuten, euren ikuspuntua artistarekin uztartuz.



Epeldek Pare Mugikorra-ren eta Atauts-en inguruko azalpenak eman zituen. R. C.



Oteizaren obra gazteek egindakoekin estali zuten; street art delakoak aldarrikatu zuten horrela. R. CALVO

ORUE
erretegia

Arrain eta haragiak parilan

Sanmaniego kalea, 3 • 20400 Tolosa
Telefonoa 943 65 19 11



Jende ugari elkartu zen herriaren sarreran, Korrika 16ri ongietorria egiteko. A. IMAZ



Aresoar ugari elkartu ziren errepidean, nahiz eta maldan gora tokatu. A. IMAZ

Leitza eta Areso Korrika 16rekin

Euskara » Tolosaldera apirilaren 2an iritsiko da Korrika 16. Atzo Leitzaaldean jende ugari babesa jaso zuen AEKren ekimenak.

ASIER IMAZ

Egun guztian euria egin arren, Korrika 16 gerturatzan ari zen heinean, zerua argitzen hasi zen atzo Leitzaan.

Jende ugari zegoen 16:32an Erasote auzoko bidegurutzean, baina Uitzitik behera ez zen korrikalari ageri. «Orduerdiko atzerapenarekin dator».

Hotzari eta minutuei aurre egiteko erremedioa: beroketa batzuk burutu, ondo tapatu eta tertulian jo eta su.

Leitza guztia kalean

Betagarriren abestiaren doinuekin, Uitzitik behera Korrika 16 agertu zen 17:00ak aldera. «Badator, badator». Udal ordezkari eta herritarrek jadanik prest zeuden.

Lekukoak harrera izugarria eduki zuen Leitzaan. Jende uholdea zegoen kaleetan, txaloz lehenik eta ondoren oinak astinduz Korrikarekin bat eginaz. Alkateak lekuko Erleta Eskolako haurrei pasa zien eta hauek Basakabi aldera bideratu zuten AEKren ekimen nazionala.

Aresoarrak zain zeuden maldan magalean.

Aresoarrak Basakabirantz

Mikel Olazabal pilotariaren babesean, Aresoko Eskolako haur batek hartu zuen lekuko. Errepidea gorantz hasi zen orduan, baina mutikoak gogor eta harro egin zuen aurrera.

Ikusteko eta parte hartzeko moduko ekimen berezia ospatu zuten atzo leitzarrek eta aresoarrek euskararen alde.



Nesken dantzak ikusteko aukera

VILLABONA » Oinkari Dantza Taldeak eta Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrek antolatuta Soinu Zahar Txapelketako saioetako bat izan zen atzo Villabonako Gurea aretoan. Guztira 43 neska aritu ziren dantzan.

Mutilen txandak beste batean izan beharko du, hauek Auresku Txapelketan ariko baitira. Bi mailatan aritu ziren atzo; 1998-2002 urteetan jaiotakoak, batetik, eta 1994-1997 urteetan jaiotakoak, bestetik. R. CALVO



Bartolarekin euskal kantak abestuz

IBARRA » Bartolaren Batzordeko kideek Kantu Bazkaria antolatu zuten Bizi Nahi elkartearen atzo. 40 lagun inguru elkartu ziren bertan euskal kantak abesteko asmoz. Goizean herriko trikitilariak eta bertsolariek alaitu zuten giroa. Bazkal ostean haur, gazte eta helduak kantuan aritu ziren. A. IMAZ

@ Papereko edizioa. Sartu gure web orrian *Papereko edizioa* atalean. Bertan Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza egunkarian iritien diren albiste guztiak aurkituko dituzu. Eskualdeetako herriren baten gainean sakatzen baldin baduzu, azken orduko albisteak ikusteaz gain egunkarian argitaratutako albisteak ikusteko aukera edukiko duzu *Papereko edizioa* sakatuz gero. Horretaz gain, albiste bakoitzaren inguruan iritzia idazteko aukera eskaintzen dizu gure web orriaren atal honak: www.tolosaldekohitza.info

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**BERRI ON BAT DUGU
ZURE ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAT**

TOLOSALDEAN
Zerbitzu
Ofizial Berria
BSH Taldeko
Markentzat

Interservice
Ubarburu pasealekua, 81-
Pol. Ind. 27 • 20014 Martutene

902 351 352

interservice
Servicio Oficial de Clientes



Alegiako Gaztetxean altzotarrak nagusitu ziren herenegun. Finalean berriro ere Alegia eta Altxo ariko dira. A. IMAZ

Alegiak eta Altxok jokatu dute apirilaren 4an bertso desafioaren final handia

Bertsolaritza » Alegiako Gaztetxean jokatu zen BertsolarHITZAren hirugarren saioa. Altxo oso indartsu aritu zen.

ASIER IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko BertsolarHITZA Desafioaren finala erabakirik gelditu zen herenegun Alegian. Gaztetxean, afariaren ostean, etxeko taldea eta Altxo aritu ziren «jolasean». 8 bertsolariak lan bikaina burutu zuten eta publikoaren artean aukeraturako bost epai-

leek argi hitz egin zuten: 4-1 Altxo garaile.

Finala apirilaren 4ean

Lehenik ohi bezala afaria burutu zen. Ondoren bertso desafioa. Amaieran tertulia. Gustura agertu zen jendea Alegiako Gaztetxean ikusi eta bizitakoarekin. Saio polita irten zen: bizia, sakona, alai, lebertzeko modukoa, ona... bezalako hitzak entzun ziren gauerditik aurrera Alegiako tabernetan.

Altxo indartsu hasi zen, AHTren inguruan bertso borobilak kantatuz. Alegiari kosta egin zitzaion herenegun. Hala eta guztiz

ere, oso indartsu amaitu zuten saioa, puntukako ariketan luzituz eta gozatuz.

Epaileek atzokoan bi gauza zituzen buruan, bata saioa eta beste finala. Kexu handirik ez zuten izusleen artean, lan zaila izateaz gain, Altxok merezi izan zuelako. Ondorioz, herenegun bezala, bi herriak finalean arituko dira berriro ere, apirilaren 4an.

Hirugarren taldea, Ibarra, finaletik kanpo geratu da aurtengoan. Hala eta guztiz ere, Pototxotx taldeko bi kidek agurra bota zuten Alegian, hurrengo urtean txapela lortu nahi dutela esateko.



Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Ukuedua.** Fistula edota errredura arazoak, zirujia gabe. Dena naturala. Deitu konpromezurik gabe: 618 62 8311.

garitxu70@hotmail.com

■ **Intza.** Herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzekoa, modu onean salgai, ezinduentzako egokitu, Aralarko magalean landetxea jartzeko aukerakoa. Harremanetarako telefonoak: 628 03 07 27, 646 1114 85 eta 609 21 83 41.
estanga@wanadoo.es

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume euskalduna eskaintzen da, auxiliar tituloduna, gaixok zaintzeko batez ere gaez. Harremanetarako: 609 15 85 19.

BEZERO ARRETA-TELEMARKETIN LANGILEA

(Erreferentzia 2009-IR-BA)

Donostialdeko enpresa batek langilea behar du BEZERO ARRETA-TELEMARKETIN sailean aritzeko.

Eskaintzen da:

- Urtea amaitu arteko kontratua (luzagarria).
- Egun osoko lanaldia txandakako ordutegiarekin.

Eskatzen da:

- Administrazio edo komertzio arloko ikasketak
- Harremanetarako erraztasuna
- Telefono bidez komunikatzeko trebezia
- Ofimatika programen ezagutza
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea baloetsiko da

Bidali CV zehatza, apirilaren 9a baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora. Ez ahaztu erreferentzia zehaztea.

Bilgune Feministaren elkarretaratzea Tolosan

A. IMAZ

Tolosaldeko Bilgune Feministak elkarretaratze berri bat egingo du bihar Tolosan 19:30ean.

San Frantzisko elizaren aurrean elkartuko dira *Emakumeon aurka-ko indarkeriari aurre hartu* lelopean, Bilgune Feministatik bertara agertzeko eskatu diete.

Elkarretaratzearen arrazoia Gasteizen kokatu behar da. Izan ere, bertan beste emakume bat hil dute. Aste baten baitan bi emakume hil dituzte Euskal Herrian. Honi aurre egitea beharrezkoa dela aipatu dute Tolosaldeko Bilgune Feministatik. Helburu horrekin deitu dute elkarretaratzera.



Goian, Aurrera Saiazekoak, behean Irurtzungoak, atzo. HERNANIKO KRONIKA

Aurrera Saiazek irabazi du VI. Berria Pilota Txapelketa

Pilota » 22-11 irabazi zuten nagusien mailan; kadeteen mailan ere garaipena eskuratu zuten; ez, ordea, jubenilen mailan.

Saiaz taldeak irabazi du VI. Berria Pilota Txapelketa.

Kadeteetan ere garaile

Hiru mailatan jokatu ziren atzokoan Hernaniko pilotalekuan finalak, nagusien mailan, kadeteen mailan, eta jubeniletan, hain zuzen ere. Kadeteen arteko partidaren ere Aurrera Saiazek irabazi zuten, 22-19ko emaitzarekin. Jubeniletan, berriz, ezin izan zuten, eta Irurtzunen aurka zuten norgehiagoka, eta eskualdekoentzatzizan da azkenean garaipena.

Urtarrilean 24 pilota taldek hasi zuten txapelketa, bik bukatu dute. Nafarrak 2007ko finalean gailendu ziren, eta bigarrena ezin izan dute irabazi. Gipuzkoarrentzat, berriz, bigarren finala zen atzokoa. Aurrekoa galdu ondoren, lehen finala lortu dute, beraz.

ERREDAKZIOA

Atzo jokatu zen Berria Pilota Txapelketaren finala, eta Aurrera Saiaz taldea izan zen garaile. Irurtzunen aurka zuten norgehiagoka, eta eskualdekoentzatzizan da azkenean garaipena.

Nagusien mailan, Renobales-Galarragak osatu zuten Aurrera Saiazeko bikotea. Irurtzungo taldean, berriz, Ollo Etxeberria ziren pilotariak. Alde handiarekin, 22-11, irabazi zuten eskualdekoek. Garaipen horri esker, Aurrera

Scalextric etxeko automobilak eta zirkuituak belaunaldi ugariaren ametsa izan dira; orain, ilusio eta lasterketa horiek guztiak Edorta Jauregi tolosarraren bilduma zabalean aurkitzen dira.

Nostalgiaz beteriko bilduma

HARRIET BELLOSO

Edorta Jauregi Tolosako Alde Zaharreko *El Kilo* dendako saltzaile bezala ezagutzen dute gehienek, baina oso gutxi dakite bere benetako zaletasuna: Scalextric automobil mundua. Denbora-pasa bezala hasi zen zaletasuna bilduma serio-ago batean bihurtzen joan zen denborarekin eta egun 600 automobil eta zirkuitu baino gehiago ditu bere etxean. Autoak eta osagarriak biltzeaz gain, konponketa lanak egiten ditu eta ahal duen guztietan Bartzelonara joaten da azken berrikuntzak ikustera.

Txikitatik «liluratuta»

Edorta oso gaztetik hasi zen automobil bilduma egiten. «Gure etxean Scalextric txiki bat genuen eta egun batean ahaztetik berreskuratzearabaki nuen. Urte batzuk beranduago, nire emazteak zirkuitu berri bat oparitu zidan eta inguruko adiskideak txikitako autoak eta osagarriak ematen hasi zitzaizkidan. Egoera kaxkarrean zeuden gehienak eta berritze lanari gustua hartu nion».

Bilduma guztietan gertatzen den bezala, inork ez du ahazten zein izan zen eduki zuen lehendabiziko pieza. «Bi Cooper txikiak hasi nintzen eta hamabost urte ni-tuela Minardi bat erosi nuen. Beti kotxeak erosten ari naiz eta duela gutxi Le Manseko 24 orduetan parte hartu zuen Jaguar zahar batenereduaerosi dut», dio Jauregik. Erosketak egitera joaten denean oso argi du zer eskuratu nahi duen: «orokorrean rallyetan, Formula 1ean eta iraupeneko lasterketan parte hartzen duten automobilak erosten ditut, baina kalean ikusten direnak edo aspaldikoak ere bai».

Bere bilduma ikusgarria da. 685 auto inguru ditu eta denak arretaz egokituta duen gela batean gorde-tzen ditu. Pieza guztiak berak eginitako apaletan aurkitzen dira eta bereziki, txikitatik dituen Cooper-ak dira. Zirkuituak ere baditu, baina automobilak dira bere izarrak. Nahiz eta zabala dirudien, oraindik gauza asko falta zaizkiola uste du: «Azken urteetan bi edo hiru piezen atzetik ibili naiz baina oraindik ez ditut aurkitu. Batzuk oso zaharrak dira eta oso unitate gutxi daude inguruan». Denbora asko darama kotxeak konpontzen eta orain aparteko trebetasuna du lan honetan. Kasu askotan egoera kaxkarrean dauden piezak lortzen ditu eta ordu asko sartu hasieran zuten itxura lortzeko. «Automobilei gurpilak aldatzen dizkiet, motor berria ezartzen diet eta karron-zeriak leuntzen ditut. Lan gogorra da baina azken emaitzak merezi du».



Edorta Jauregi bere bildumako automobil batzuekin. HARRIET BELLOSO

Pieza baliotsuak

Scalextric mundua maite duen pertsona batentzat automobil hauekin aritzea azaldu ezin daitekeen sentsazioa da. Jauregik bere bildumako auto eta zirkuitu gehienak erabili ditu. «Apurtzeko oso errazak diren lau edo bost kotxe ezik, guztiak probatzea gustatzen zait. Batzuk ez ditut kaxatik ateratzen, adibidez, Carlos Sainzek sinatutakoa. Hori ez dut sekula erabiliko».

Bestalde, antzinako modeloen eta egungo modeloen arteko desberdintasunak nabariak dira. Oraingo kotxeek iman indartsuagoa dute eta oso zaila da pistatik ateratzea. «Abiadura handiagoak hartzeko gaitasuna dute eta segurtasunean ere hobetu dute. Gainera, itxura zainduagoa dute, benetakoetara asko gerturatzen direlarik. Modelo zaharrak, aldiz, motelagoak dira eta zirkuitutik errazago ateratzen dira».

Gehiegarrien aldetik ere larri ibiltzen ziren, garaiko ibilgailuak bezala. Jauregik ez daki zein garaiarekin geratu: «Klasikoaren eta

modernoaren arteko nahasketa dute, baina oraingo modeloak azkarragoak dira eta lasterketan aritzen diren antzekoak dira».

Scalextric mundua ez da inoiz geratzen eta denboraldi bakoitzean



Bilduman garai guztietako autoak daude. HARRIET BELLOSO

an auto, pieza eta osagarri berriak agertzen dira. Internet informazio iturri baliotsua izan daiteke, baina zaletasun honetara zuzenduta dauden aldizkariak albiste eta datu zehatzagoak ematen dituzte. Jauregi bi aldizkari garrantzitsuen harpideduna da eta berrikuntza guztiak gertutik jarraitzen ditu. «Sarean salmenta eta truke orrialde asko daude eta Ebay bezalako enkante webguneetan aurkitzeko modeloak azaltzen dira».

Bilduma ezaguna

Edorta Jauregiaren bilduma oso ezaguna da Euskal Herrian nahiz atzerrian. Erakusketa ezberdinetan parte hartzeko proposamenak jaso izan ditu baina ideia honek ez du gehiegi erakartzen: «Asko balio duten piezak ditut eta puskatzeko edo galtzeko arriskua dago. Lortzeko zailak dira eta nire ustez etxeko apaletan hobeto daude».

Erakusketez gain, bestelako proposamenak ere izan ditu. «Bartzelonara joaten naizenean hainbat automobil salneurriarengatik galdetzen didate, bildumagilearen artean izen handia baitute. Oraingo ez dut diru hori behar, beraz, ez daude salgai».

Bere bilduma ezaguna da bertan nahiz atzerrian, eta erakusketak egiteko proposamenak izan ditu

Gipuzkoan badira Scalextric autoen bilduma egiten duten zale gehiago, baina harrigarriena Baionan aurkitzen da. Bertako biztanle batek 2.000 automobil eta zirkuitu baino gehiago ditu eta erakusketak ere antolatuta izan ditu Frantzia eta Espainian.

Tamaina txikiko automobilenganoako zaletasuna benetako autotetara ere luzatzen da. «Nire ametsetako kotxea Ferrari da, baina BMW markako autoak ere asko gustatzen zaizkit. Horietako bat edukitzea gustatuko litzaidake, baina oraingo ametsa besterik ez da». Bat Formulako lasterketa guztiak ikusteko ohitura du eta Fernando Alonsoen «jarraitzaile sutsua» dela onartzen du. Bere bilduma zabalean ez dira Renaulteko gidariaren autoak falta eta denboraldi gehienetakoak eskuratu ditu.

Bere lehengusu batzuk Bartzelonan bizi dira eta Montmeloko zirkuituan lasterketak antolatzen direnean asteburua pasatzera bertara joatea ere gustatzen zaio. «Urte asko daramatzat joaten eta Scalextric-eko gauzak saltzen dituzten dendak bisitatzeko aprobetxatzen dut. Azkenean Gipuzkoako edo Euskal Herriko dendetan lortu ezin ditudan gauzak erosten ditut».

Etxeko trastelekuan gisa honetako zirkuitu edo automobil zaharren bat duenak, beraz, ez dezala bota zaborretara, Edorta Jauregi honi bigarren aukera emateko prest egongo baita.



9°
3°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	10°
HOTZENA	1°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Mendia

■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkar-tearen eskutik, 41. Ibilaldia, Andatza, Adarra eta Leizaran inguruan. Ibilbide luzea (46 km, 10 ordu, 6:30ean abiatuta) eta motza (22 km, 5 ordu, 8:00etan abiatuta).

Jaiak

■ **Tolosa.** La Serena bailaran jaiotakoek eta beren ondorengoek festa eta bazkaria izango dute La Jara Extremadurako Etxean.

Erakusketa

■ **Hernalde.** Argazki kameran erakusketa. Hainbat tamaina eta itxurako kamerak ikusgai.
■ **Tolosa.** Aranburun, Oteiza Tolosan. *Oteiza, bizirako proiektua* erakusketa + Oteiza Tolosan atal berezia + ikus-entzunezkoak.

Zinema

■ **Tolosa.** Gaur, Leidor aretoan: 17:00etan, *Winx club: el secreto del reino perdido* haurrentzako filma; 19:30ean eta 22:00etan *The reader* filma. Bihar (ikuslearen eguna): 20:30ean, *The reader*.
■ **Villabona.** Gaur, Gurea aretoan: 17:00etan, *Beverly Hills Chihuahua*; 19:30ean, *La duda*. Bihar (ikuslearen eguna): 21:30ean, *La duda*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

Bihar

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
■ **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.



Jira eta buelta Belabieta kiroldegian

IBARRA ■ Gimnastika Erritmikoko jirak eta bueltak izan ziren atzo nagusi Ibarako Belabieta kiroldegian, bertan jokatu baitzuten kirol mota honetako B mailako eskola arteko txapelketa egun guztian zehar. Goizeko hamaiketan alebin mailako bost talde eta bakarkako

14 lagun izan ziren, eta baita haurren mailako 3 talde eta bakarkako sei lagun ere. Bazkalostean, 16:30ean, benjaminen topaketa izan zen eta 25 talde banakako 12 gaztetxo izan ziren kiroldegiko jaun eta jabe. Aurreko kanporaketa Bergaran izan zen. R.CALVO

A Agurrak



Zorionak amatxo!

33 muxu goxo zure ttikian partetik!



Urte askoan!

Eneko Artola Amundarain (Tolosa). Bihar 9 urte. Zorionak eta muxu bat denon partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA Korrikarekin bat!



HITZAK harpidedunentzat **KORRIKA**ko
6 kamixeta ditu

Emakumezkoen 3 kamixeta eta gizonezkoen beste 3 kamixeta.

kamixetak eskuratzeko deitu:
943-65 56 95
harpidedun kodea eskura duzula

16. korrika æk

